

Topalekua

89 zk. 2016ko apirila

abril 2016 - n.º 89

1-2. orr.: UPV/EHU-ren 2016ko aurrekontua onartu du
Gizarte-Kontseiluak 402,75 milioi eurokoa da

2. orr.: UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak ordainketa osagarrien esleipena eta finkapena ontzat eman ditu

3. orr.: Zer espero dute ikasleek sozialki erantzule diren unibertsitateetatik?

4. orr.: UPV/EHUk EHUALUMNI bulegoa izango du


UPV/EHU-REN 2016ko AURREKONTUA ONARTU DU GIZARTE-KONTSEILUAK 402,75 MILIOI EUROKOA DA

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura bildu da, eta Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatearen 2016ko aurrekontua onartu du. Aurrekontua 402,757 milioi eurokoa da: aurreko ekitaldikoa baino % 1,56 handiagoa (aurrekoa 396,557 eurokoa izan zen).

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak kontuen aurreikuspen hori onartu du, honako

hauek aztertu ondoren: batetik, otsailaren 4ko UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen Aurrekontu Proiektua; eta, bestetik, Gizarte Kontseiluaren Ekonomia eta Finantza Batzordeak proiektu horri buruz igorri duen txostena. Batzordeak txosten horretan jaso ditu berritasun nagusiak, bai eta kapituluaren, programen eta gastu-unitateen arabera finantza-azterketa zehatza ere.

AURREKONTUAREN BILAKAERA 2004-2016



	2016	2015
Langileria-gastuak	308.891.573	302.224.261
Funtzionamendu-gastuak	69.998.653	71.297.135
Finantzaketa-gastuak	208.884	256.878
Gastu arruntak egiteko transferentziak eta diru-laguntzak	2.032.340	2.042.694
Egiazko inbertsioak	18.569.294	17.915.488
Finantza-aktiboak aldatzea	100.000	100.000
Zorra amortizatzea	2.500.351	2.484.348
Beste batzuk	456.000	236.877
GASTUAK GUZTIRA	402.757.095	396.557.681

Kapituluen arabera gastu-azterketan jasota dago UPV/EHUren gastu-banaketa:

- Langileen gastuetarako, 308,89 milioi euro; 2015ean baino % 2,21 gehiago.
- Funtzionamendu-gastuetarako, 69,99 milioi euro; aurreko urtean baino % 1,82 gutxiago.
- Inbertsioetarako, 18,56 milioi euro; 2015ean baino % 3,65 gehiago.
- Zorra amortizatzeko, 2,50 milioi; aurreko urtean baino 0,64 gehiago.
- Gainerakoa (kopuru osoaren % 0,7 baino gutxiago) honela banatzen da: gastu arruntak egiteko transferentzietan eta diru-laguntzetan, finantzaketa-gastuetan eta Gizarte Kontseiluaren aurrekontuan.

Diru-sarrerei dagokienez, 307,9 milioi euro datoz Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretatik; hori da, zehatz-mehatz, aurrekontuaren % 76,45. Milioi horietako 276,35 ohiko ekarpenekoak dira; 31,04 milioi programa-kontratuei zuzenduta daude; eta 0,5 milioi dagozkio Inbertsioak egiteko Urte Anitzeko Planari. Ikasketa-tasen bidez lortuko diren diru-sarrerak 45,74 milioi eurokoak izango dira; zehazki, aurreikusitako diru-sarreren % 11,28.

Osoko bilkuraren beste erabaki batzuk

Bestalde, osoko bilkurak honako erabaki hauek ere hartu ditu bilera berean:

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Conferencia de Decanas y Decanos de Derecho (Zuzenbideko Dekanoen Biltzarra) elkartean parte hartzea.
- Ikasleek doktorego-ikasketetan jarraitzeko araudia onartzea.
- Ikasketa osagarrietako hiru ikastaroren tasak finkatzea: «LHko irakasle teknikoak trebatzea (I. modulu berezia)»; «LHko irakasle teknikoak trebatzea (Modulu generikoa)»; «LHko irakasle teknikoak trebatzea (Praktikak)». Horrez gain, beste bi ikastaroren matrikula-prezioak baliozkotu ditu: «LHko irakasle teknikoak trebatzea (II. modulu berezia)» eta «LHko irakasle teknikoak trebatzea (Ikasketa Amaierako Lana)».
- Kontseiluak berak abenduaren 31n dituen likidazio-egoerak onartzea eta UPV/EHUK eskatu dituen aurrekontu-aldaketak ontzat ematea.

Azkenik, Kontseiluak Maite Pérez Hidalgo izendatu du, UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluan Gizarte Kontseiluko ordezkariak izan daitezen. Horrez gain, Adolfo Apiñániz eta Ismael Redondo izendatu ditu, Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa koordinatzeko Kontseiluan Gizarte Kontseilua ordezkatzeko.

UPV/EHUKO GIZARTE KONTSEILUAK ORDAINKETA OSAGARRIEN ESLEIPENA ETA FINKAPENA ONTZAT EMAN DITU

Abenduaren 28an, Bilbon, antolatu zen UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak ontzat eman zuen Ordainketa Osagarri Gehigarrien C1 eta C2 tar-teak esleitzea eta finkatzea, euren meritua, 2015eko irailaren deialdiaren arabera, egiaztatu zituzten unibertsitateko ikasleei.

Horrez gain, Kontseiluak Unibertsitateko hiru campusetan eskaintzen diren Giza Zientzietako Unibertsitate Tituluen prezioak ere ontzat eman zituen (Esperientziaren Gelak) eta finkatu edo baliozkotu zituen (zego-kienaren arabera) ikasturte honetan UPV/EHUn eskainiko diren osagarriko 31 ikastaroren tasa akademikoak.

Osoko Bilkura berebean, Kontseiluak erabaki zuen Donostiako «Villa Asunción» izeneko eraikinetik unibertsitate zerbitzua ateratzea eta hura Gipuzkoako Foru Aldundiari laga zion, Ondarreta Pasealekuko «Centro Elbira Zipitria Zentroa» ireki ondoren, aipatutako instalazioak hustuko eta unibertsitate zerbitzurik gabe geratuko baitira.

Azkenik, Osoko Bilkurak ontzat eman zituen Unibertsitateak eskatutako hainbat aurrekontu aldaketa eta erakundearen beraren finantza informazioaren egoerak, 2015eko irailaren 30ean.

ZER ESPERO DUTE IKASLEEK SOZIALKI ERANTZULE DIREN UNIBERTSITATEETATIK?

Zer espero dute ikasleek sozialki erantzule diren unibertsitateetatik? Galdera horri berari erantzun nahi dio, izenburu berberarekin, Marta Rey García andreak egindako azterlanak, alegia: Universidade da Coruña-ko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko merkatuen merkataritza eta ikerketa Arloko irakaslea eta Gizarte Erantzukizuneko Inditex-UCD Katedraren zuzendaria, Ezagutza eta Garapen Fundaziorako (CYD)

CYDk «**Bere itxaropenetara zuzendutako agente taularen proposamena**» azpi izenburuarekin argitaratu duen azterlana ikasleek, goi mailako hezkuntzaren erakundeetarako funtsezko alderdi gisa, dituzten premien analisitik abiatu da. Horrek arloari buruz eskuragarri dauden azterlan enpirikoak errebisatzen ditu, ezartze ahularen kausak eztabaidatzen ditu eta ikasleen itxaropenak aztertzen ditu, sozialki erantzulea den unibertsitate bat izan beharko litzatekeenari dagokionez, eta azkenik, agente taula bat proposatzen du, gizarte erantzukizuna, unibertsitateetako gobernu sistemen eta zuzendaritza estrategikoaren funtsezko pieza gisa, barne hartzeko prozesua bideratzeko.

Agente taula egiteko, egileek aukeratu dute unibertsitatekoak berezkoak diren zereginak eta unibertsitateak eragina sortzen duen esparruak uztartzen dituen matrize bat. Horrela, unibertsitateak gobernu onarekiko, gizarte jarduerarekiko eta ingurumen iraunkortasunarekiko gain hartutako konpromisoak dimentsio generikoak dira eta GERi dagokion esparru teoriko eta kontzeptual gehienetan agertzen dira. Ezagutza triangelua izenekoa osatzen duten elementuek, berriz, -hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza- unibertsitatearen zeregin instituzionalaren barneko dimentsioak eraten dituzte. Zeregin hura, hain zuzen ere, ezagutza sortzean (ikerketa), igortzean (prestakuntza / irakaskuntza / irakaspena / ikaskuntza) eta aplikatzean datza (transferentzia, barreiadura); eta aldi berean, elkarri elikatzen dira.


Emaitzazko taulan, matrizearen laukitxo bakoitzak identifikatzen dituzte unibertsitateko hiru zeregin bakoitza betetzetik eratorritako jarduerak biltzen diren arloak, aipatutako jarduerak eragindako inpaktuekin. Arloek batzen dituzte unibertsitatearen jarduerak, dagokien zereginen arabera, zuzendu behar dituzten konpromisoak edo helburuak, aipatutako zeregina garatzeko egin beharreko lanarekin, aipatutako jardueren inpaktua erantzukizunez kudeatzeari dagokionez.

Egindako analisiari esker, UGE arloko alderdi garrantzitsuenak, bere helburuak eta harremanak identifikatu daitezke, eta baita horiek lortzeko ematen ari diren urratsak neurtzeko adierazle egokienak ere. Helburua goi mailako hezkuntzako erakundearen zereginak betetzeko prozesua errazte da, erantzuleagoa eta gizarte, ekonomia eta ingurumen arloan iraunkorragoa den lanaren bidez; eta gero eta nabarmenagoak diren konplexutasun eta eskakizun inguru batean eta gero eta mugatuagoak diren baliabide batzuekin, unibertsitateek euren gobernatza -eta bereziki, kontuak emateari eta informazio gardentasunari dagokienez-, euren gizarte inpaktuak, enpresarekin duten harremanak eta nazioartera ateratzeko bere helburua kudeatzen duten eran hobekuntza nabarmenak espero dituen inguru batean.

Ondorioetan, egileek espero dute egindako analisia eta proposatutako agente taula UGE sustatzeko erabili ahal izatea eta politikak eratzeko eta kudeaketa hobekuntzak hiru arlotan sortzeko ildoak kudeatzeko erreminta bilakatu ahal izatea:

- **Unibertsitate politikak formulatzeaz arduratzaren direnak:** gizarte erantzukizuna unibertsitatearen zeregin hirukoitza betetzea errazten duen erreminta gisa barne hartu behar dute, balio iraunkorrak finantzatzeko eta sortzeko eta bantatzeko eredu baten bidez.
- **Ikasleak (ikasleak eta ikasle ohiak),** unibertsitatearen bilakaera sozialeko zeregina betetzeko funtsezko pieza dira. Unibertsitateetako gobernu organoek ikasleen itxaropenetan eta konpromisoetan eragiten duten marketen estrategiak diseinatu behar dituzte, erantzuleagoa eta iraunkorragoa den unibertsitate bat eskatzerakoan eta eraikitzerakoan.
- **UGE ezartzea: erabilgarria izan dadin,** denontzat berdina den lengoaia garatu behar da, interes taldeak, dimentsioak eta adierazleak neurtzeko eta konparatzeko eta baita hautatzeko eta lehen tasuna emateko ere. Emaitzazko azterlanak eta taulak matrize soila eta ikasleen itxaropenetan oinarritutako gai eta adierazle desberdinak eskaintzen ditu.

UGEko AGINTE TAULA



Iturria: egileek egina

UPV/EHUk EHUALUMNI BULEGOA IZANGO DU

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak **ehualumni** bulegoa abian jarri du, alegia; erakundeko ikasle ohiei zuzenduriko lotura plataforma bat. Harekin, bere egoera soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala hobetu nahi du, eta aldi berean, tituludunei zerbitzu bat eskaini nahi die maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean.

Ekimen hau hainbat helbururekin sortu da, besteak beste: partaidetza sustatzea, unibertsitate jardueren hedapenarekin kolaboratzea, Unibertsitatearen irudia hobetzea eta erantzukizun soziala suspertzea. Hura, UPV/EHUko ikasle ohiei ez ezik, titulazio guztien azken

mailako ikasleei eta entitate kolaboratzaile bilakatu nahi duten enpresei ere zuzentzen zaie.

Kolektibo honetan parte hartu nahi duten pertsonak edo entitateek eskuragarri izango dituzte hainbat programa berri (Mentoring, Embajador, Cicerone eta Prestakuntza Eskola), lan orientabideko, ekimen jardueretako eta praktiketako zerbitzuak, lan poltsa eta bestelako abantailak.

Ehualumni zerbitzua bost programarekin abiatu da, dagoeneko aipatu ditugun lauak (euren ezaugarri, helburu eta parte hartzeko baldintza propioekin), eta bosgarren bat, gizarte nabarmenak eta garrantzitsuak diren ikasle ohiak barneratzeko helburuduna:

ehualumni Garrantzitsua Programa

- Komunikabideetan eragina duten eta ikasle ohien alta berriak bereganatzen dituzten ikasle ohien talde adierazgarri eta garrantzitsu bat sortuko da.
- Hurrengo urteetan hautaketa prozesu bat ezarriko da ikasturte bakoitzeko bi pertsona nabarmen izendatzeko.

ehualumni Zaintzailea Programa

- Konexio prozesu honen bidez, esperientzia handiago duen **ehualumni** zerbitzuko kide batek (zaintzailea) beste batik irakatsiko, aholkuak emango, zuzenduko eta lagunduko dio (zaindutakoa), bere garapen pertsonalean, akademikoan eta profesionalean.
- Bertan bertakoak diren eta ez diren topaketak.
- Zaintzaile gisa kolaboratzeko, 3 urte edo hortik gorako lan esperientzia eduki behar du.
- Zaindutakoa izateko 8 urtetik beherako lan esperientzia eduki behar du.

ehualumni Cicerone Programa

- Kokapena edo enpresa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo partekatzen duten ikasle ohien arteko loturak bideratzea du helburu.
- Bere xedea logistikari edo laneratze prozesuari buruzko zalantzak argitzea da, testuinguru berri honetan lehenengo urratsak bideratzeko helburuarekin (beharrezko dokumentazioa, estatua, ohiturak eta usadioak, etab.).

ehualumni Enbaxadore Programa

- Unibertsitateko administrazio zerbitzu eta unitate desberdinen kultur, jolas eta ikasketa jardueren sustapenean kolaboratzeko, eta baita ikasle ohientzat garrantzitsu edo onuragarri den bestelako jarduerarena ere.
- Enbaxadore izan nahi dutenek enpresan beste ikasle ohi aurkituko dute, eta UPV/EHUko mezuak zabalduko dituzte.

Prestakuntza Eskola Programa

- Bere helburua da Eskola honetan parte hartzen dutenei lana bilatzeko gaitasun aurreratuak ematea, arlo edo sektoreen arabera tailerren bidez.
- Ikasle ohientzat laneratze prozesuaren gida orientagarria sortu nahi da.
- Ikasle ohiak tailerrak eskaintzeaz arduratuko dira eta 8 urte edo hortik gorako esperientzia duten espezialitatearen inguru murgilduko dira.
- 8 urtetik beherako lan esperientzia duten ikasle ohiak hartu ahal izango dute parte.

Ikasle ohi fenomenoaren jatorriak

Ikasle ohi fenomenoaren herrialde anglosaxoiaren ikasle ohien elkarteetan sortu zen. Elkarte horiek eratu ziren gertaera sozialak antolatze, buletinak edo al-dizkariak kaleratzeko edo unibertsitateko funtsak biltzeko. Askotan, elkarte hauek onurak eta zerbitzuak eskaintzen zituzten eta horiei esker, ikasle ohiak euren hezkuntza erakundearekin eta graduazio ikaskideekin lotura egonkorra eduki ditzakete. Horrez gain, talde hauek ikasle ohientzat lagungarriak izan daitezke, to-

pagune izan baitaitezke, euren erakunde berearekin ikasi duten pertsonekin negozio kontaktuak eta harremanak ezartzeko.

Gure inguruan, eta duela zenbait urtetik, unibertsitate gutxiak ikasle ohien elkarteak eduki arren, 1997. urtean, elkarte desberdinak batu ziren elkarte fenomenoaren sustatzeko eta Espainiako unibertsitateen ikasle ohien sare bat ezartzeko. Gaur egun, 48 elkarte hartzen dute parte aipatutako sarean.